

**BERMEOKO UDALEKO HERRI-ARGITERIA INSTALAZIOEN ENERGIA-
ZERBITZUAK, MANTENU ETA BERME OSOAREKIN****KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA (6)**

Bermeoko Urian, Udaletxean eta honen Intxausti kaleko batzar gelan, 2017ko martxoaren 27an, goizeko 8:00ak direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburua
Pedro Bilbao Larrauri J^a, zinegotzia
Amaia Elorza Elortegi A^a, zinegotzia
Sergio Ugalde Zabala J^a, zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udal Idazkaria
Edurne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio mahaiko idazkaria.

Batzar honetarako, Zerbitzu saileko teknikaria, aholkulari moduan, egotea eskatu da.

Batzarra hasirik, Zerbitzu Saileko teknikariak lizitatzailen "C" gutun-azaleko dokumentazioa aztertzeko orduan aurkitu dituen zalantzak azaltzen ditu. Kasu batzutan B gutun azaleko dokumentazioan adierazitakoa ez dator bat C gutun azalean egindako proposamenarekin.

Hau dela eta, lizitatzaileri C gutun azalean jarritako zifren zergatiaren azalpena eskatzea adosten da.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

